


LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2. MAILA

2025/2026 IKASTURTEA

MODULU LANERAKO IKASLEAREN GIDA



Iturria: Tonucci (2007), *40 años con ojos de niño*

K4 MODULUA

ANIZTASUNA ESKOLAN

Moduluaren koordinatzailea: Ana Luisa López Vélez,

analuisa.lopez@ehu.eus

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. MODULUAREN IKASGAIAK ETA IRAKASLEAK	3
3. MODULU-LANAREN AURKEZPENA	4
3.1 Modulu-lana	4
3.2 Taldeen osaketa	5
4. HELBURUAK, KONPETENTZIAK ETA IRAKASKUNTZA EMAITZAK	6
5. EGIN BEHARREKO LANA	8
5.1 Ezaugarriak orokorrak	8
5.2 Metodologia	8
5.3 Lana egiteko orientazioak eta lanaren faseak	8
5.3.1. Lehenengo fasea: Kasuaren hautaketa eta kontaketa	9
5.3.2. Bigarren fasea: Zergatik gertatu da gertatu dena? (kasuaren analisia, hipotesiak, galderak eta kontzeptuak sortu)	10
5.3.3. Hirugarren fasea: Proposamenen helburuak zehaztu. Zer lortu nahi dugu? Zer egin dezakegu gatazkak prebenitzeko edo konpontzeko?	11
5.3.4. Laugarren fasea: Epe labur eta luzerako esku-hartzeak proposatzea. Zer egingo dugu?	12
5.4 Kronograma	12
5.5 Lanaren entregak	14
6. IDATZIZKO TXOSTENA	16
6.1 Luzera eta formatua	16
6.2 Plagioa eta adimen artifizialaren erabilera	16
7. EBALUAZIOA	17
7.1 Ohiko deialdia	17
7.1.1. Ebaluazio jarraia	17
7.1.2. Ebaluazio ez jarraia	18
7.2 Ez ohiko deialdia	19
7.2.1. Ebaluazio jarraia	19
7.2.2. Ebaluazio ez jarraia	19
8. OHAR GARRANTZITSUAK	20
9. BIBLIOGRAFIA	21
10. ERANSKINAK	23
10.1. Lehenengo eranskina	23
10.2. Bigarren eranskina	25
10.3. Hirugarren eranskina	26
10.4. Laugarren eranskina	28
10.5. Bostgarren eranskina	30

1. SARRERA

TESTUINGURUA			
Zentroa:	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea		
Moduluaren izena:	<i>Aniztasuna Eskolan</i>		
Maila:	2	Lauhilekoa:	2

Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Lehen Hezkuntzako graduako Aniztasuna Eskolan 4. moduluko (K4) diziplinarteko lana aurkeztuko dugu gida honetan. Modulu hau, hain zuzen ere, titulazioko 2. mailako 2. lauhilekoan gauzatzen da. Bost ikasgai daude Aniztasuna Eskolan modulan:

- Eskola Inklusiboaren Oinarriak
- Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Testuinguru Eleanitzetan
- Ikastetxearen Antolakuntza
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak
- Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntzan

2. MODULUAREN IKASGAIAK ETA IRAKASLEAK

31. Taldea

IKASGAIA	IRAKASLEA	EMAILA	TELEFONOA
Eskola Inklusiboaren Oinarriak	Haizea Galarraga	haizea.galarraga@ehu.eus	945 01 4192
Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Testuinguru Eleanitzetan	Urtzi Reguero	urtzi.reguero@ehu.eus	945 01 4200
Ikastetxearen Antolakuntza	Eider Hermoso	eider.hermoso@ehu.eus	945 01 4340
IKTak Lehen Hezkuntzan	Hector Galindo	hector.galindo@ehu.eus	945 01 3422
Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntzan	Priscila Comino	priscila.comino@ehu.eus	945 01 4201

32. Taldea

IKASGAIA	IRAKASLEA	EMAILA	TELEFONOA
Eskola Inklusiboaren Oinarriak	(Koordinatzailea) Ana Luisa López	analuisa.lopez@ehu.eus	945 01 4216
Hizkuntzaren didaktikaren oinarriak testuinguru eleanitzetan	Maite Aperribay	maite.aperribay@ehu.eus	945 01 4209
Ikastetxearen antolakuntza	Irakasle berria		
IKTak Lehen Hezkuntzan	Rakel Gamito	rakel.gamito@ehu.eus	945 01 3826
Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan	Arantzazu Rodríguez	arantzazu.rodriguez@ehu.eus	945 01 4219

Talde Hirueleduna

IKASGAIA	IRAKASLEA	EMAILA	TELEFONOA
Principles of the inclusive school	(Koordinatzailea) Ana Luisa López	analuisa.lopez@ehu.eus	945 01 4216
Principles of the language teaching for Primary Education	Asier Barandiaran	asier.barandiaran@ehu.eus	945 01 4194
Organización del Centro Educativo	Irakasle berria		
IKTak Lehen Hezkuntzan	Hector Galindo	hector.galindo@ehu.eus	945 01 3422
Dificultades en el desarrollo y el aprendizaje	Arantzazu Rodríguez	arantzazu.rodriguez@ehu.eus	945 01 4219

3. MODULU-LANAREN AURKEZPENA

3.1 Modulu-lana



1. irudia: Aniztasuna Eskolan moduluko grafikoa

Moduluko lanak 5 ECTS kredituko balioa izango du guztira, kreditu bat ikasgai bakoitzeko. Hau da, zuzeneko 10 ordu eta zuzenekoak ez diren 15 ordu moduluko ikasgai bakoitzeko.

[Moduluetako akordioen Gidaren](#) arabera, modulu lana derrigorrezkoa da eta hura egin ahal izateko gutxienez K4 modulua osatzen duten hiru irakasgaietan matrikulatuta egon behar da (ikusi 1. irudia). Hori betetzen ez den kasuetan, Irakas Koordinaziorako Batzordeak gomendatzen du modulu lana egin behar ez izatea eta, ondorioz, matrikulatutako irakasgaien kalifikazioa 10etik egitea, modulu lanari dagokion ehunekoa aplikatu gabe.

3.2 Taldeen osaketa

Diziplinarteko lana burutzeko 4 ikaslez osatutako taldeak sortuko dira. K4 moduluaren aurkezpen saioan lantaldeak antolatuko dira. Taldearen eraketa ikasleriaren ardura izango da. Gelatik kanpo burutu beharreko talde-lana errazteko, kideen gertutasun geografikoa eta ordutegien bateragarritasuna kontuan hartzea gomendatzen da. Talde bakoitzari tutore bat esleitu zaio, K4ko ikasgaibateko irakaslea izango dena.

[Moduluetako akordioen Gidaren](#) arabera, tutoreak gidatuko du taldearen lan modularren prozesua, gidan adierazitako jarraibideei jarraituz, baita tutoretzen datak eta entrega- eta ebaluazio-epeak ere. Tutorea arduratuko da taldeak lana modu egokian egin ahal izateko behar duen laguntza guztia eskaintzeaz.

Bestalde, derrigorrezkoa da ikasle taldeko kide bakoitza prestakuntza, jarraipen eta ebaluazioko bilera bakoitzera joatea eta modu aktiboan parte hartzea. Taldearen lehen bileran, kide bakoitzaren rolak eta zereginak erabakiko dira. Taldearen antolakuntza lehen entregan bidaliko da. Lantaldearen bilera bakoitzean, denbora bat emango da txosten xehatu bat egiteko, eta, txosten horretan, taldeko kide bakoitzak bete dituen ardurak, zereginak eta lana erregistratuko dira. Txosten horiek lanarekin batera bidaliko dira entrega-datetan. Txosten horiek tutorearekin berrikusiko dira tutoretza-bilera bakoitzean. Moduluetako akordioen Gidaren 5. orrialdean adierazten den bezala:

“1.7. ZER GERTATZEN DA TALDEKIDEREN BATEK MODULU LANEAN INPLIKAZIORIK ERAKUTSI EZ DUELA FROGATZEN BADA? Taldekide horrek suspentsoa edukiko du ohiko deialdian, eta hurrengo deialdietan azken ebaluazio sistemaren bidez ebaluatua izango da.”

Arazoren bat izanez gero eta tutorearekin konpondu ezinean bada, Moduluetako akordioen Gidaren 5. orrialdean adierazten denez:

“Modulu lana gauzatzeko prozesuan arazorik sortuko balitz, lehenik eta behin moduluko koordinatzailearekin hitz egin beharko zenukete; arazoa konponduko ez balitz, Graduako koordinatzailea eta Irakas Koordinaziorako Dekanordea jakinaren gainean jarri beharko zenituzkete.”

4. HELBURUAK, KONPETENTZIAK ETA IRAKASKUNTZA EMAITZAK

Eskolan egungo kezketako bat testuinguru horretan diharduten pertsona guztien arteko elkarbizitza bermatzea da. Datuen arabera, ikasleen kopuru esanguratsu batek jaso ditu inoiz, modu batean edo bestean, ondorengoak: tratatu txarrak, jokabide bortitzak, erlazionatzeko arazoak, etab. Komunikabideen bitartez bullying kasuak handitu direla esaten zaigu. Baina, horrelako oso muturreko egoeretara iritsi gabe ere, ikasleek egunerokoan klasekideren bat iraindu, bultzatu, jo edo barregarri uzten dutela ikus daiteke maiz. Horrek ondorioak dakartza ikasgelaren baitan; taldearen harremanak oztopatuz eta bazterkeria eta egokitze-arazoak sortuz.

Oro har, elkarbizitza-arazoak ikasgela barruan adierazten dira. Hala ere, zentroari buruzko ikuspegi zabalago eta konplexuago batetik, hau da, eskola osatzen duten pertsonak kontuan harturik, elkar-ekintzetan ere ager daiteke gatazka: irakasleen artean, familien artean, familia eta irakasleen artean, etab.

Egoera horiek ikusirik, beharrezkoa da denon artean lankidetzak eta bizikidetzak giroa sortzen duten portaera asertiboak garatzea, eta horrekin batera, prebentzioa eta jokabide desegokiei erantzuna ematea. Gatazkak konpontzeko baliabideak eduki behar dituzte irakasleek, eta gainera, ahalbidetu behar dute aipaturiko egoeretan ikasleek eurek, protagonista edo lekuko izanik, trebetasunak gara ditzaten. Modulu lan honen **helburua**, ikasle-talde bakoitzak elkarbizitzan eragiten duen arazo edo gatazka baten kasu- kontaketa aurkeztzea da. . Halaber, kasua aztertu eta epe labur zein luzeko esku-hartzeak proposatuko ditu.

Prozesuan zehar zalantzak agertuko dira: zer da elkarbizitza? “Gatazkarik eza” defini al daiteke? Eta zer da gatazka? Ezinbestean negatiboa izan behar al du? Eskolatik zer gatazka mota kudea daitezke? Zein gizarte-eragilek hartu behar du parte gatazka horien konponbidean? Gatazkak saihestu daitezke? Ekintza-planik izan behar al luke eskolak? Kanpoko zein eragilek erraztu dezake elkarbizitza eta gatazken ebazpena? Nola bizi ohi ditugu egoera horiek? Ze harreman dugu gatazkekin?

K4 moduluaren bidez landuko ditugun gaitasunak, lortu nahi diren ikaskuntza emaitzak eta egindako lanek Agenda 2030ean duten eragina ikustarazteko asmoz, gaitasun bakoitza zein Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH) lerrokatzen den zehazten da hurrengo taula honetan.

K4ko gaitasunak	Irakaskuntza emaitzak	GIH
1. Behaketa teknikak erabiliz, datuak bildu , bai gelan eta bai eskola inguruan.	Praktikaldian egindako behaketetan oinarrituz, edo euren ikasleen esperientzietatik edanez, aniztasuna zein bizikidetzaren hizpide duen KASU baten eraikuntza .	GIH4, GIH10
2. Hezkuntza/Garapen prozesuen faktore nagusiak identifikatzea , bai gela bai eskola mailan.	Eraiki duten KASUan inplikaturik dauden aldagai, faktore, elementuak identifikatzeko gai izatea, hipotesi edo galdera ezberdinen sorkuntzaren bidez, bai gela bai eskola mailan.	GIH4
3. Beharrezkoak diren baliabideak eskuratzea, ikasgelan eta zentroan esku-hartze egokia egiteko , ikasleen beharrei eta ikaskuntzako/garapeneko zailtasunei inklusio irizpideen arabera erantzunez.	KASUAN agertzen den egoera azaltzeko sortu dituzten hipotesietarako edo galderetarako erantzun posibleen zehaztapena eta horretara heltzeko egindako informazio bilaketa .	GIH4; GIH5, GIH10
4. IKTak erabiltzea , norberaren eta elkarlanaren eta ikaskuntzako/garapeneko eta ezagutza eraldatzeko tresna gisa, askotariko baliabide grafikoak eta multimedia-baliabideak erabilia.	Poster bat sortu honakoa islatzen duena: kontakizunaren testuingurua, identifikatutako heziketa beharrak, eta epe motz eta luzerako hobekuntzen proposamena.	GIH4
5. Autonomia Erkidegoaren bi hizkuntza ofizialen komunikazio gaitasunak garatzea, erreferentziako Europako esparruaren B2 lortu arte.	Ematekoen eta azken lanaren hizkuntzaren egokitasuna.	GIH4

1. taula: Gaitasunak eta ikaste-emaitzak. Oharra: GIH4, Kalitatezko Hezkuntza; GIH5, Genero- Berdintasuna; GIH10, Desberdintasunak Murritzeta

5. EGIN BEHARREKO LANA

5.1 Ezaugarriak orokorrak

Elkarbizitzarekin edo eskola-aniztasunarekin lotutako kasu baten kontaketa landu behar da. 2025ean edo 2026an gertatutako albiste batean oinarritutako kasu erreal bat izango da. Zalantzak, blokeoa, erresistentzia, aldatzeko gogoia edota atsekabea sorrarazi dituen esperientzia izan behar da. Taldean partekatu nahi den egoera izango da; ezin izan delako kasua behar bezala interpretatu, kasu horrek zalantzak sortu dituelako bakoitzaren jokaeraren gainean zein praktiketako tutorearen portaeraren gainean, etab.

5.2 Metodologia


Diziplinarteko lanean erabiliko den metodologia kasu-azterketa izango da. Ikasleak bere ikaskuntza-eremukoa den arazo erreal eta zehatz baten azterketan oinarritutako ikaskuntza aktibo eta kooperatiboan oinarritzen da metodo hori (SIE-UPM, 2008).

Aurkikuntza-ikaskuntzan oinarrituko i(ra)kaskuntza-metodo horrek jakin-mina sustatzen du. Halaber, bizitzan zehar egindako ikaskuntza ahalbidetzen duten trebetasunak garatzea dakar, ikaslea prozesu horren partaide sentitzea bultzatuz. Beraz, zer, nola eta noiz ikasten den erabakitzerakoan, ikaslearen parte-hartze aktiboa eskatzen du kasu-azterketak. Proposatutako egoera eta bertan agertzen diren arazoetatik, ikasi beharreko oinarri edo kontzeptuez jabetuko da ikaslea, irakaslearen azalpenak itxaron gabe (GMA-UPV, 2004). Modu horretan, ezagutzaren transmisio eredu tradizionala gaingitu egiten da; jakite hutsean oinarritzen diren klase magistralen ordean, *egiteko gai sentitzea eta egiten jakitea sustatuz, eta autonomia eta motibazioa areagotuz*.

5.3 Lana egiteko orientazioak eta lanaren faseak

Kasuaren kontaketa bidez, 2025ean edo 2026an gertatutako albiste batean oinarritutako kasu erreal bat berreraiki nahi da, bizi izandakoari zentzua emateko asmoz. Bizipena ez da inoiz guztiz banakakoa izaten, hortaz, konponbidea ere ez da

aurkitzen banakako erantzunetan, baizik eta adostutako erantzun baten ondorioz, kolektiboki eraldatzen gaituzten praktketan (Rivas et al., 2014).



2. irudia: Lanaren faseen grafikoa (LH)

5.3.1. Lehenengo fasea: Kasuaren hautaketa eta kontaketa

Lehen fasea oinarria da, hortik abiatuko baita ostean egingo dugun lana. Beraz, bakoitzak 2025ean edo 2026an gertatutako albiste batean oinarritutako kasu erreal bat proposatu eta kontatu beharko du idatziz, honako eskema jarraituz:

- Zer gertatu da? Zein da gatazka?
- Zein testuingurutan?
- Nortzuk dira protagonistak?
- Zer eragin du kontatutako egoerak elkarbizitzan eta eguneroko harremanetan?
- Zer erantzun eman zitzaion gatazkari?

Ondoren taldean, bakoitzaren kasuak partekatuko dira eta taldeka bat aukeratuko da, jarraian garatzeko eta analisia egiteko, hau da, aukera den kasu hori (aukeran zeuden

4etatik) sakonago adierazi beharko da. Taldearen kasua izango den hori eraikitzeko, honako ezaugarriak hartuko dira kontuan:

TESTUINGURUA	PROTAGONISTAK
Eskolaren ezaugarriak: Publikoa/pribatua; erakundearen tamaina, herri/hiria, auzoa edo herria, bertako metodologia, eskolaren antolamendua eta arautegia.	Identifikatzea: Zenbat protagonista daude gure kasuaren kontaketan.
Taldearen ezaugarriak: Nolakoa da taldea, zein den ikasgelako girola, ze harreman botere daude taldean, ze harreman du irakasleak ikasleekin...	Protagonisten ezaugarriak: Nolakoak dira? (beharrezkoak jotzen diren ezaugarriak zerrendatu daitezke)
Momentuaren ezaugarriak: Non izan den, jolas orduan, zirkulazio librean, gorputz hezkuntzan, sarreran, irteeran..	Momentuko rola: Zer egiten zen bakoitza momentu horretan? Zein zen haien rola?
Testuinguruaren ezaugarriak: Familia (maila sozio-ekonomikoa, kulturala), adin bereko taldekideak, auzoa, komunitatearen indarkeria, komunikabideak, gizartea, egoera zaurgarrian dagoen familia/haurra, generoa...	Protagonisten testuingurua: Aldez aurretik antzeko egoera gehiago sortu al ziren (kasuaren aurrekariak)? Egiturazko arazo baten aurrean gaudela uste dugu?

2. taula: Kasua kontatzeko kontuan hartu beharreko faktoreak.

Hemendik aurrera taldekideen artean adostutako kasu bakarra aztertuko du taldeak, gertatutakoaren kontaketa eginez, hau da, kasuaren gertaeren sekuentzia nabarmenduz. Azterketaren bidez gatazkaren sorburuak zeintzuk diren zehaztuko dira talde hipotesiaren bidez eta ostean, gatazka bera ebazteko esku-hartzea arrazoituak garatuko dira.

5.3.2. Bigarren fasea: Zergatik gertatu da gertatu dena? (kasuaren analisisa, hipotesiak, galderak eta kontzeptuak sortu.

Ikasleek aukeratutako kasua aztertu beharko dute, gatazkaren dimentsio desberdinak jasoz eta premiaren arabera ordenatuz. Egoeran parte-hartzen duten aldagaiak identifikatu beharko dituzte, indargune eta ahuleziak, ageri diren rol ezberdinak, protagonisten arteko harremanak, bakoitzaren oinarri ideologikoak, etab. Analisi

horren arabera eta taldekideen ezagutzak azaleratuz. Kasua aztertzeke, Zabalak eta Arnauk (2014) proposatutako urratsak jarraituko dira:

- *Kontzeptuak identifikatzea eta azaltzea*: Zeintzuk dira kasuarekin lotzen diren hitz/kontzeptu gakoak? Hauek zehaztu eta azaldu behar dira teoria/erreferentzia zientifikoak erabiliz. Adibidez cyberbullying kasu bat deskribatu badugu, agian azaldu behar izango ditugun hitz gako batzuk izan daitezke: Biktimizazioa, jokabide prosozialak, teknologia digitalak, bullying-a, Internet arriskuak...
- *Arazoa definitzea*: Zer gertatu da? Nork egin du? Non gertatu da? Noiz gertatu da? Zergatik gertatu da?
- *Aurretiko galderak edo hipotesiak identifikatzea*: “Zergatik pentsatzen dugu arazo hori gertatu dela?” galderari erantzun behar diogu. Arazo bat baino gehiago baldin badago, arazo bakoitzak bere hipotesia(k) izan behar d(it)u.
- *Ideiak antolatzea*: Kasua definitu ostean eta hipotesiak sortu ostean, nola lotzen dira ideia guztiak?

5.3.3. Hirugarren fasea: Proposamenen helburuak zehaztu. Zer lortu nahi dugu? Zer egin dezakegu gatazkak prebenitzeko edo konpontzeko?

Kasuaren analisi osoa ahalbidetu eta horren esku-hartzea erraztuko duen informazioa bilatu beharko du taldeak. Horretarako, Zabalak eta Arnauk (2014) proposatutako urratsak lagungarriak izango dira:

Lehenik eta behin, bakarkako azterketa: Taldekide bakoitzak, ikasketa-helburuetan oinarritutako informazioa jasoko du. Hau egin ostean, bildutako informazioa taldean partekatu.

Puntu honetan, hurrengo taula beteko da informazioa antolatuta izateko:

PROPOSAMENEN HELBURUAK	EGILEA/ ITURRIA	Lortutako informazio esanguratsuen (puntuak)	Zergatik uste dugu iturritik aukeratutako proposamenek egoki erantzuten diotela planteatutako egoerari?
1.	González et al. (2021)	• ... • ...	• ... • ...
	Pérez eta Manzano (2018)	• ... • ...	• ... • ...
2.	López (2015)	• ... • ...	• ... • ...
	Juan López (LHko irakaslea)	• ... •	• ... • ...

3. taula: Proposamenen helburuen inguruan informazioa biltzeko, antolatze eta laburtze euskarria.

5.3.4. Laugarren fasea: Epe labur eta luzerako esku-hartzeak proposatzea. Zer egingo dugu?

Bakarka zein taldeka egindako analisitik eta bildutako informaziotik abiatuta, talde bakoitzak planteatu duen egoera hobetzeko esku-hartzeak proposatu beharko ditu aukeratutako eredu teorikoa kontuan hartuz. Epe labur eta epe luzerako proposamenak antolatuta egon behar dira pertsona/talde ezberdinentzat (ikasle zehatzentzat, familientzat, ikastetxearentzat, ikasgelako taldearentzat...) eta esku-hartze bakoitzaren indarguneak eta ahulguneak adieraztea garrantzitsutzat jotzen da.

5.4 Kronograma

Aipatu berri diren fase bakoitzean, ondoren zehazten diren dokumentuak aurkeztuko zaizkie tutoreei. Hauxe da egin beharreko lanak eta datak jasotzen dituen kronograma ebaluazio jarraia egingo duten ikasleentzat. **Bertaratzea eta parte hartzea derrigorrezkoak dira.**

DATA	ZEREGINA	GAIA
Urtarrilak 29, osteguna	1. EMATEKOA (*)	Ikasle bakoitzak aukeratutako 2025/2026ko berriaren aurkezpena eta taldeka hautatutako berriaren kontaketa xehea. Talde bakoitzaren antolakuntza eta taldekideen rolak eta ardurak azaltzen diren txostena.
Otsailak 10, asteartea	1. TUTORETZA	1. ematekoaren ERREBISIOA + 2. Ematekoaren PRESTAKETA. Talde dinamikaren jarraipena.
Otsailak 19, osteguna	2. EMATEKOA (*)	Gatazkaren arrazoiei buruzko hipotesiak edo galdera egitea eta kontzeptuak sortzea teorian oinarrituta. Talde bileren jarraipen txostena.
Otsailak 25 – 27, asteazkena, osteguna eta ostirala	JARDUNALDI PEDAGOGIKOA (25, 26) eta 2. TUTORETZA (27)	Tailerrak, hitzaldiak, 2. ematekoaren ERREBISIOA eta 3. ematekoaren PRESTAKETA. Talde dinamikaren jarraipena.
Martxoak 12, osteguna	3. EMATEKOA (Lan osoa) (*)	Fase guztiak biltzen diren txostena, proposamenen helburuak teorian oinarrituta eta epe laburreko eta epe luzerako proposamenak biltzen dituen txostena. Talde bileren jarraipen txostena.
Martxoak 23, astelehena	3. TUTORETZA	3. ematekoaren ERREBISIOA, lan osoa. Talde dinamikaren jarraipena.
Apirilak 1, asteazkena	AZKEN ENTREGA (*)	Behin-betiko txostena. Bileren jarraipen txostenak. (Lanaren eranskinetan)
Apirilak 20 -24 Tutorearen tutoretzetarako orduetan	4. TUTORETZA	Posterra eta defentsaren PRESTAKETA eta autoebaluazioaren PRESTAKETA. Koebaluazioa.
Apirilak 29 eta 30, asteazkena, osteguna	ERAKUSKETA, apirilak 29 DEFENTSA, apirilak 30	

4. taula: Kronograma.

(*) Dagozkien egunetan ematekoak bidaltzeko epea 23:59etan amaitzen da.

OHARRA: Tutoretza egunetan eskolak bertan behera geldituko dira. K4ko saioaren bat bertan behera geratzen bada, klase egun arrunta egongo da eta ikasleak klasera etorri behar dira.

5.5 Lanaren entregak

Entrega bakoitzaren bidez, talde lana osatzen joango da, hau da, entrega bakoitzean aurreko fase guztietan egindakoa ere aurkeztuko da, beharrezkoak diren zuzenketekin.

1. entrega (1. fasea)

Taldeko kide bakoitzak idatzi duen kasuaren deskribapen laburra egingo du. Deskribapen hori egiteko, 1. fasean agertzen diren galderak hartuko dira kontuan. Gainera, behin kasu bat aukeratuta, honen deskribapen sakona ere sartuko da, horretarako, 2. taulan agertzen den informazioa erabiliz. Lehen ematekoaren data urtarrilak 29 izango da. Emateko hau jaso ezean ikasleak ohiko deialdiari uko egingo diote. Ematekoa eGelan bidez egingo da.

2. entrega (2. fasea)

Sakon azaldutako kasuarekin zerikusia duten ideia eta kontzeptuen azalpena adieraziko da. Horretarako, bilaketa bibliografiko bat egingo da adierazitako kontzeptu bakoitza deskribatzeko (gutxienez kontzeptu bakoitzeko bi iturri bibliografiko erabili behar dira). Horrez gain, kontzeptu bakoitzak gatazkan izan duen eragina azalduko da, edo nola eragin dezakeen gatazkari prebenitzeko edo konpontzeko. Kontzeptuak deskribatu ondoren, taldeak egiten dituen hipotesiak edo galderak aurkeztuko dira, eta horiei erantzun beharko zaie kasuan deskribatzen den bizikidetza-arazoa prebenitzeko edo konpontzeko. Horretarako, bigarren fasean agertzen diren pausoak jarraitzea gomendatzen da. Bigarren ematekoaren data otsailak 19 izango da eta eGelaren bidez egingo da, gure tutorearen izena dagoen lekuan.

3. entrega (3. fasea eta 4. fasea)

Kasuan kasuko gatazkari aurre egiteko planteatutako helburuak aurkeztuko dira, hura prebenitzeko edo ikastetxeko edo gela jakin bateko bizikidetza hobetzeko. Helburuak zehaztu ondoren, bibliografia berrikusiko da, eta literaturan agertzen diren proposamenak bilatuko dira, gatazka prebenitzeko edo bizikidetza hobetzeko. Horretarako, iturri bibliografikoak erabiliko dira (gutxienez 8 iturri bibliografiko). 3. taula erabiliko da bilaketa bibliografikoaren bidez bildutako informazioa antolatzeke eta laburtzeko.

Ondoren, taldeak landutako proposamenak aurkeztuko dira, epe motzerako proposamenak bereiziz, unean uneko egoerari erantzuteko egin beharrekoak; eta epe luzerako proposamenak, ikasgelan eta ikastetxean egoera prebenitu eta hobetzeko, denboran iraun dezan. Ondorioetan proposamenen mugak azalduko dira. Hirugarren

ematekoak lan osoa izango du bere baitan, hala ere, behin behineko txostena izango da eta martxoaren 12rako izango da. EGelaren bidez egingo da bidalketa, gure tutorearen izena dagoen lekuan.

Azken entrega

3. tutoretzaren ondoren, taldeak txostena hobetzeko aukera izango du, tutoreak egindako iruzkinak eta proposamenak kontuan hartuta. Edukia eta euskararen zuzentasuna kontuan hartuta hobetutako portafolio osoa azken entregan aurkeztuko da. Lan hau behin betiko lana da eta ez ditu zuzenketa gehiago onartuko, honen emateko apirilaren 1ean izango da eta eGela bidez egingo da, gure tutorearen izena dagoen lekuan.

Erakusketa eta defentsa

Egindako lan guztia poster batean islatuko da eta erakusketa batean aurkeztuko da. Erakusketan, gainerako ikaskideek egindako lanak ikusi ahal izango dira, eta sortzen diren galderei erantzungo diete. Erakusketa apirilaren 29an izango da.

Defentsan, apirilaren 30ean, 3 talde eta 2 irakasle eztabaidan sartuko dira, ikasleek euren lana azaltzeko. Epaimahaikidea osatzen duten irakasleek egindako galdera bat taldekide banak sakonki erantzungo du. Horrez gain, gainontzeko taldeek galdera batzuk prestatuko dituzte beste taldeei egiteko. 10-12 minutuz taldekideek egindako lana azalduko dute epaimahaikideek egindako galderen bidez, eta ondoren 5 minutuz taldeek egindako galderak eta zalantzak erantzungo dituzte ikasleek.

6. IDATZIZKO TXOSTENA

Lanak gaiari eskatzen zaion sakontasuna, luzera eta berritasuna izan beharko du. Azken txostena egindako entrega guztiek osatuko dute. Eranskinetan talde bilera bakoitzean egindako erregistro txostenak sartuko dira.

6.1 Luzera eta formatua

Lanak **gutxienez 15 eta gehienez 20 orrialde izango ditu** (azala eta eranskinak kontuan hartu gabe). Arial 11, EHUSans 11 edo EHUSerif 11 letra tipoak erabiliko dira. Lerroartea 1,5 cm-koa izango da, eta marjinak 2,5 cm-koak.

6.2 Plagioa eta adimen artifizialaren erabilera

Ezingo da plagiorik egin, ezta adimen artifiziala modu desegokian erabili ere. Ondorioz, taldekide guztiek ez dute gaindituko lan modularra. EHUn plagiotzat zer hartzen den eta nola saihestu azaltzen duten argibideak [esteka honetan](#) daude. Adimen artifizialaren erabilerari dagokionez, kontuan hartu behar da esteka honetan eskuragarri dagoen [EHUn Adimen Artifizial Sortzailea Erabiltzeko Printzipio eta Gomendioen gidan](#) adierazitakoa, batez ere 12. orrialdean azpimarratzen dena.

“Ikasleen kasuan: Garrantzitsua da ikasleek AA sortzailearen potentzialtasuna eta mugak ezagutzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan erabilgarri suerta dakieken. Horrekin lotuta, ezinbestekoa da tresna hauek erabiltzeko orduan pentsamendu kritiko eta arduratsua sustatzeko beharra azpimarratzea.

AA sortzailearen erabilera lehenetsiak:

- Informazio eta irakaskuntzako material osagarria bilatzea.
- Lan akademikoak egiteko abiapuntu izango diren ideiak sortzeko laguntza.
- Informazioa hobeto ulertu eta antolatzekeo laguntza; laburpenak, mapa kontzeptualak, etab.
- Testuen edizioa eta berrikuspena.
- Aurrerapenaren autoebaluazioa egitea, eta gaitasunak zer neurritan eskuratu diren ebaluatzekeo azterketa, ariketa eta galderak sortzea.
- Hizkuntza gaitasunak bereganatzeko laguntza.

AA sortzailearen erabilera debekatuak:

- AAk sortutako edukiak norberak sortutakoak balira bezala aurkeztea.
- AAk sortutako edukiak lanetan erabiltzea, AA sortzailea erabili izana deklaratu gabe.
- Azterketetako proben erantzunetan edo ebaluazio jarraituan AA sortzailea erabiltzea, baldin eta berariaz adierazi bada debekatuta dagoela.”

7. EBALUAZIOA

K4 modulu lana egin ahal izateko matrikulatutako irakasgaietan guztietan ezinbestekoa izango da ebaluazio jarraiaren sistema jarraitzea. Ikasleak irakasgai horietako batean ebaluazioa jarraiari uko egiten badio, modulua ebaluatuko litzateke ebaluazio ez jarraian aurreikusitako planteamenduaren arabera (ikusi 7.2. puntua).

Hori azalduta, modulu lana bi ebaluazio moten arabera ebaluatua izan daiteke: ebaluazio jarraia eta ebaluazio ez jarraiaren arabera.

7.1 Ohiko deialdia

7.1.1. Ebaluazio jarraia

Egindako prozesua, lana eta aurkezpena ebaluatuko dira. Tutoreak prozesuan zehar egindako lanaren balorazioa egingo du (moduluko notaren % 40ko balioa) (ikusi 2. Eranskina). Gainera, taldeak ahozko aurkezpena egin behar du (moduluko notaren % 60ko balioa) bi irakasleren aurrean (ikusi 3. Eranskina). Irakasleek ebaluazio errubrika kontuan hartuz haien balorazioak egingo dituzte defentsa egunean. Defentsaren egunean, talde bakoitzak galderak erantzuteko 10-12 minutu izango ditu. Ondoren, eztabaidan parte hartzen duten gainontzeko taldeen galderak egingo dituzte eta taldekideek galderak erantzungo dituzte.

Horrez gain, autoebaluazioak eta koebaluazioak osatuko dute modulu lanaren nota. 4. tutoretzan tutorearekin batera koebaluazioa adostuko da (ikusi 4. Eranskina). Ikasleek kontuan izan behar dute ebaluazio mota hauen helburuak gaitasun kritikoa indartzea eta pixkanaka ebaluazioaren konpetentziak garatzea direla. Horregatik, ez da norbere buruari nota altuagoa oparitzeko aukera bat bezala ulertu behar eta ezinbestekoa da autoebaluazioak zein koebaluazioak prozesuarekin eta emaitzarekin bat egitea. Hori bermatzeko asmoz, ez dira autoebaluazioko nota kontuan hartuko horien eta tutoreak jarritako notaren artean 1,5 puntu baino gehiagoko aldea badago. Autoebaluazioa eta koebaluazioa betetzeko 4. eranskinean dagoen errubrika erabili beharko da. Behin taldekideen erantzunak jasota, irakasleak koebaluazioa kalkulatzeko, pertsona bakoitzari eman zaion puntuazioa kalkulatu du. Koebaluazioan ikasle bakoitzari emango zaion puntuazioak eragin proportzionala izango du azken notan.

Jarraian zehazten dira ikasleei eskatuko zaizkien ekoizpenak eta horien balioak. Gainera, eranskinean moduluko nota ebaluatzeko erabiliko den errubrika kontsulta daiteke:

Ebaluazio mota	Ekoizpena	Balioa
Heteroevaluazioa	Kasuaren kontaketa eta aldagaien identifikazioa	% 5
	Kontzeptuak (teorian oinarrituta), hipotesiak edo galderak	% 10
	Helburuak (teorian oinarrituta), proposamenak eta erantzun posibleak	% 15
	Ondorioak eta hausnarketa	% 5
	Defentsa (eztabaida)	% 60
Autoevaluazioa	Norberak bere prozesuaren inguruko autoevaluazioa egin beharko du, gaitasunen lorpen-maila zein izan den zehaztuz. Hausnarketa pertsonal hori bakarka egindako ibilbidearen ebidentziei lotua egon beharko da.	% 5
Koevaluazioa	Taldeko hausnarketan oinarrituz, taldekideen artean adostu beharko da partaide bakoitzari ematen zaion nota.	Proporzionala

5. taula: Ebaluazioa.

Talderen batek ematekoren bat epe barruan aurkeztuko ez balu, ez ohiko deialdian lan guztia aurkeztu behar izango du. Ebaluazio jarraia gainditzeko lanaren atal guztiak (lan idatzi eta aurkezpena) gainditu behar dira.

7.1.2. Ebaluazio ez jarraia

Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiaren arabera, ikasleek eskubidea dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak ebaluazio jarraiari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat (ikusi 1. eranskina) igo beharko du eGelara bederatzi asteko epean. K4 modulu honen kasuan, martxoaren 19rako agiri sinatua eGelara igotzen ez bada, ikasleak ebaluazio jarraitua egin nahi duela ulertuko da.

Ebaluazio jarraituari uko eginez gero, ohiko deialdian, idatzizko proba baten bidez ebaluatuko da. Proba horretan, ikasleak erakutsiko du gai dela gida honetan deskribatutako fase guztiak garatzeko. Horretarako, azterketa egin aurretik proban

landu beharko duen bibliografia gomendatua emango zaio. Derrigorrezkoa da bibliografia proban erabiltzea. Beharrezkoa izango da martxorako moduluaren koordinatzailearekin harremanetan jartzea, beharrezko azalpenak jasotzeko.

7.2 Ez ohiko deialdia

7.2.1. Ebaluazio jarraia

Ez ohiko deialdian aurkeztutako lanaren hobekuntzak planteatuko dira tutore bakoitzaren feedbacka kontuan hartuz. Deialdi honetan, talde bakoitzaren tutoreak ebaluatuko du bere taldearen lana.

7.2.2. Ebaluazio ez jarraia

Ohiko deialdian probaren antzeko ezaugarriak dituen idatzizko proba baten bidez ebaluatuko da. Derrigorrezkoa izango da koordinatzaileak gomendatutako bibliografia bera erabiltzea.

8. OHAR GARRANTZITSUAK

Edonola ere, ebaluazio jarraitua edo ez-jarraitua egin, ezinbestekoa da modulu-lana gainditzea ikasgai hauek gainditzeko:

- Eskola Inklusiboaren Oinarriak.
- Ikastetxearen Antolakuntza.
- IKTak Lehen Hezkuntzan.

Behin azken nota jasota, ez da hori hobetzeko aukerarik eskainiko, prozesuan zehar zenbait feedback eskaintzen direlako eta, ondorioz, taldeek prozesuan zehar lana hobetzeko aukera dutelako.

Era berean, lan idatzizkoan zein ahozko aurkezpenean euskara maila ona derrigorrezko baldintza izango da eta suspenditu daiteke euskara maila dela eta. Euskara maila ebaluatzean Fakultateko Euskara Batzordearen dokumentua kontuan hartuko da (ikusi 5. eranskina). Honela, akats gramatikal eta ortografiko kopuruaren arabera lan idatzian zein ahozko aurkezpenean puntuak kenduko dira:

- 4 akats => - 0,75 puntu
- 5-6 akats => - 1,25 puntu
- 7-8 akats => -1,5 puntu
- 9-12 akats => -2,5 puntu

Gogoratu moduluen akordioen gidan ikasleen oinarrizko galderak agertzen direla: [hemen ikusgarri](#).

9. BIBLIOGRAFIA

- Cascón, P. (2001). *Educación en y para el conflicto*. Barcelona: Cátedra UNESCO sobre Paz y Derechos Humanos. <http://www.bibliotecavirtual.info/wp-content/uploads/2012/11/educar-en-y-para-el-conflicto-pcs.pdf> -tik berreskuratua.
- Cascón, P. (d.g.). *Gatazken ebazpen hezitzaileko zenbait apunte* [diapositiva-aurrekezia]. Eskola Bakegunea. http://www.eskolabakegunea.euskadi.eus/c/document_library/get_file?uuid=6bf2b1a9-b129-40b7-b957-9c7c583d2cf8&groupId=2211625 -tik berreskuratua.
- Consejería de Educación y Ciencia, Dirección General de Orientación Educativa y Solidaridad (2004). *Convivencia escolar y resolución pacífica de conflictos*. Junta de Andalucía. <http://www.juntadeandalucia.es/educacion/webportal/abaco-portlet/content/0569edc1-e8cb-4b1d-b043-2b9507b00a79> -tik berreskuratua.
- Díaz-Aguado, M. J. (2002). Ayudando a resolver conflictos. In M. J. Díaz-Aguado, *Convivencia escolar y Prevención de la violencia*. INTEF, Instituto Nacional de Tecnologías Educativas y de Formación de Profesorado. http://ntic.educacion.es/w3/recursos2/convivencia_escolar/ -tik berreskuratua.
- Díaz-Aguado, M. J. (d.g.). *Convivencia escolar, disciplina y prevención de la violencia*. http://www.eskolabakegunea.euskadi.eus/c/document_library/get_file?uuid=18157a51-4114-47b6-b998-f48bc5d1ae6d&groupId=2211625 -tik berreskuratua.
- GEUZ, Gatazkek Eraldatzeko Unibertsitate Zentroa (d.g.). *Ikastetxeetan gatazkek elkarlanean ebazteko estrategiak*. http://www.gabiria.eskolatxikiak.org/wp-content/uploads/2012/08/Guia_Procesos_resolucion_conflictos_escuela_EUS.pdf -tik berreskuratua.
- Goroskieta, V. (d.g.). *Gatazpen ebazpena*. https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/F5833643-85AC-4415-BAD4-BFC41A23EE39/138581/10_Atal_237254e1.pdf -tik berreskuratua.
- Grupo de Metodologías Activas (Universidad Politécnica de Valencia) (2004). Método del Caso (ficha descriptiva y de necesidades). <http://www.upv.es/nume/descargas/fichamdc.pdf> -tik berreskuratua.

ISEI-IVEI (2017). *Ikaskideen arteko tratu txarrak 2016*. ISEI-IVEI.
https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/bizikasi/6002017001e_Pub_ISEI_tratu_txarrak_2016_e.pdf- tik berreskuratua.

Martínez, A., eta Musitu, G. (1995). *El estudio de casos para profesionales de la acción social*. Narcea.

Rivas, J. I., Leite, A. E., eta Prados, E. (koord.). (2014). *Profesorado, escuela y diversidad. La realidad educativa desde una mirada narrativa*. Aljibe.

Servicio de Innovación Educativa (Universidad Politécnica de Madrid) (2008). El Método del Caso. <http://innovacioneducativa.upm.es/guias/MdC-guia.pdf> - etik berreskuratua

Zabala, A., eta Arnau, L. (2014). *Métodos para la enseñanza de las competencias*. Graó.

10. ERANSKINAK

10.1. Lehenengo eranskina



Etengabeko ebaluazioari uko egitearen eskaera

Irakaslearentzako frogagiria

Izen-abizenak:

NAN zkia:

Irakasgaia:

Maila:

Uko egiten dio etengabeko ebaluazioko sistemaren bitartez ebaluatua izateari.

Eskatzen du azkeneko ebaluazio sistemaren bitartez ebaluatua izatea.

Irakaslearen sinadura:

Ikaslearen sinadura:

Data:

Etengabeko ebaluazioari uko egitearen eskaera

Ikaslearentzako frogagiria

Izen-abizenak:

NAN zkia:

Irakasgaia:

Maila:

Uko egiten dio etengabeko ebaluazioko sistemaren bitartez ebaluatua izateari.

Eskatzen du azkeneko ebaluazio sistemaren bitartez ebaluatua izatea.

Irakaslearen sinadura:

Ikaslearen sinadura:

10.2. Bigarren eranskina

TXOSTENA EBALUATZEKO ERRUBRIKA: %35					
EBALUAZIO IRIZPIDEA	Hobetu behar da (0-4,9)	Nahikoa (5-6,9)	Oso ondo (7-8,9)	Bikain (9-10)	Gehienezko puntuak
Taldearen izena:					
Kasuaren kontaketa eta aldagaien identifikazioa (% 5)					
2025ean edo 2026an gertatutako berri batean oinarrituz, aniztasuna zein bizikidetzaz hizpide duen kasu baten kontaketa sakona egiten da. Kasua testuinguratzeko gaitasuna erakutsi da.					0,5
Kasuko testuingurua, protagonistak eta aldagaiak modu egokian identifikatzen dira. Hau da, taulan adierazi dauden elementuak haien kasura aplikatu eta beharrezkoa den informazioan sakondu da.					0,5
Kontzeptuak (teorian oinarrituta), hipotesiak edo galderak (% 10)					
Eraiki duten kasuan inplikaturik dauden aldagai, faktore eta, elementuak identifikatzeko gai izan dira, galdera ezberdinen sorkuntzaren bidez, bai gela, bai eskola bai komunitate mailan.					1
Kasurako erantzun posibleak aztertzeke egindako informazio bilaketa egokia izan da. Taulan erreferentzia teorikoen bilaketa sakon bat dago eta kalitatezko iturriak dira. Modu egokian aurkezten dira iturri bakoitzetik aukeratu diren alderdiak. Argi azaldu da zergatik uste den aukeratutako elementu bakoitzak modu koherentean erantzuten diela proposamenaren helburuei.					1
Helburak (teorian oinarrituta), proposamenak, erantzun posibleak (% 15)					
Kasuko helburuei erantzuteko epe motz eta luzerako proposamenak egin dira.					1
Proposamenek kasuarekin eta identifikatutako heziketa beharrekina lotura zuzena dute eta egoera hobetze aldera aproposak eta lorgarriak dira. Hau da, errealitatearekin bat egiten dute indarguneak eta ahulguneak aintzat hartuz.					1
Ondorioak eta hausnarketa (%5)					
Egindako ikaskuntzarekiko kontzientzia dute, prozesuaren inguruan ahulgune eta indargunean antzeman eta lanak ekarritako esperientzia adierazten da.					
OHARRAK:					

AZKEN KALIFIKAZIOA

10.3. Hirugarren eranskina

AHOZKO AURKEZPENAREN EBALUAZIOA (%60)				
EBALUAZIO IRIZPIDEA	Hobetu behar d (0-4,9)	Nahikoa (5-6,9)	Oso ondo (7-8,9)	Bikain (9-10)
Taldearen/ikaslearen izena:				
Prozesuaren garapenaren berri eman da, kritikotasun eta heldutasunez (FASEAK, ZAILTASUNAK, HOBETUTAKOAK).				
Lanaren atal guztiak adierazi dira (KASUA, (DEFINIZIOA,, IKASTE-XEDEAK, BILAKETA, ERANTZUNAK).				
Protagonista guztiak behar bezala identifikatu dira.				
Hobekuntza proposamenak azaldu eta justifikatu dira (HOBETZEKO KONTZIENTZIA DUTE)				
Erregistro egokia eta hizkera INKLUSIBOA erabili dira (TERMINO BARNE-HARTZAILEAK, ETIKETAK SAIHESTU, HIZKERA EZ-SEXISTA)				
Eztabaida egoki eta adoretsua (GORPUTZ JARRERA, KONPROMISO SOZIALA).				
Baliabideen eraginkortasuna (Posterra).				
Denboraren kudeaketa egokia (10-12 MINUTURA EGOKITU DIRA)				
Taldeakide guztien parte-hartze orekatua (DENEK HITZ EGITEN DUTE ETA DENBORA BANAKETA NAHIKO ANTZEKO DA).				
Egin zaizkien galderei modu egokian erantzun diete (ERANTZUN OSATUA ETA KRITIKOA)				
Galdera egokiak egin dizkiete beste taldeei, kasuarekin, kontzeptuekin, helburuekin eta planteatutako proposamenekin bat etorriz. (EZTABAIDA OSATUA ETA KRITIKOA)				

KALIFIKAZIOA JUSTIFIKATZEA:
INDARGUNEAK:
AHULEZIAK:

AZKEN KALIFIKAZIOA

10.4. Laugarren eranskina

AUTOEBALUAZIOA (%5) ETA KOEBALUAZIOA ERRUBRIKA (proportzionala)

Taldearen/ikaslearen izena:

IRIZPDEAK	0-4	5-6	7-8	9-10
PARTE-HARTZEA	Moduluko bilera eta tutoretzetan parte-hartzeko saiakera ez da zerbait konstantea izan eta ostein ez dut tarterik hartu bertan landutakoari edo gertatutakoari buelta bat emateko. Saiok ordenagailuarekin edo mugikorrarekin egoteko aprobetxatu izan ditut, beste ikasgai batzuetako lanak jarraitzeko edo besterik gabe, fisikoki presente egoteko baino ez.	Talde bilera eta moduluko tutoretza ia guztietan parte-hartu dut. Taldeko eztabaida eta erabakietan niri iritzia eman dut batzuetan, baina ez beti. Ardura nagusia beste taldekideek hartu dute. Tarteka mugikorra edota ordenagailuarekin egon naiz, nahiz eta ez dudan haria galdu.	Talde bilera eta moduluko tutoretzetan, oro har, parte-hartze aktiboa izan dut. Hau da, moduluko zereginetan iritzi eta zeregin propioa izaten saiatu naiz, besteek esandakoa jarraitze- ra mugatu gabe. Hausnartzeko jarrera erakutsi dut eta saiatu naiz taldeari ekarpena egiten.	Tutoretza eta talde bilera guztietara etorri naiz. Parte-hartze aktiboa izan dut, hau da, moduluko dinamiketan parte-hartu dut, niri iritzia eta esperientzia partekatuz eta taldekideei entzunez. Nire jarrera hausnartzeko baliogarria izan zait. Mugikorra zein ordenagailua alde batera utzi ditut eta ikasgelan egon naiz.
EUSKARA	Ez dut euskaraz hitz egiteko ariketa egin: euskaraz egiteko erraztasuna dut baina ohitu naiz ikasgelako dinamika gaztelaniaz izatera. Edo euskaraz egiteko zailtasuna dut eta egoera hori baliatu dut euskaraz ez hitz egitea justifikatzeko. Lanak gaztelaniaz egin eta gero itzultzailearekin egokitu ditut. Ez dut euskaraz idazteko saiakerarik egin.	Batzuetan euskaraz hitz egiteko ariketa egin dut: euskaraz egiteko erraztasuna dut, baina ez dut egoera hori baliatu besteei erraztasunak jartzeko. Edo euskaraz egiteko zailtasuna izanik, batzuetan saiakera egin dut euskara izateko taldeko lan hizkuntza. Lan gehienak euskaraz egiten saiatu naiz eta itzultzailea laguntza moduan erabili dut.	Batzuetan euskaraz hitz egiteko ariketa egin dut: euskaraz egiteko erraztasuna dut, baina ez dut beti hori behar bezala baliatu. Edo euskaraz egiteko zailtasuna izanik, kontzientzia horrekin jardun dut eta taldea bultzatzen saiatu naiz lan hizkuntza euskara izan zedin. Gehienetan lanak euskaraz egin ditut, itzultzailearekiko mendekotasunik gabe.	Euskaraz hitz egiteko ariketa era kontzientean egin dut: euskaraz egiteko erraztasuna daukat eta besteei ere bidea erraztu diet. Edo euskaraz egiteko zailtasunak edukita, horren kontzientziaz jardun dut eta taldeko lan hizkuntza euskara izateko ahalegin handia egin dut. Lanak euskaraz egin ditut eta itzultzailea une puntaletan erabili dut.
ARDURA	Orokorrean ez dut era arduratsuan jokatu moduluarekin. Ez ditut egin niri zegozkidan lanak egin eta taldeko bileretan ez dut ekarpenik egin. Taldekideak nire gainean egon behar izan dira. Ez dut nire hanka sartzeen ardurarik hartu eta ez zait inporta izan lan gehiena nire taldekideek egitea.	Oro har, moduluarekiko ardura izan dut, baina beti ez ditut lanen epeak bete. Lanaren haria gehienetan jarraitu dut eta tutorearen proposamenak betetzen ahalegindu naiz, baina gehiago egin nezake (bilerak aldeztu aurretik prestatu, nire atalak gehiago landu, etab.). Akatsen edota hanka sartzeen ardura hartzea kostatzen zait.	Moduluarekiko ardura izan dut, eta lanen epeak bete ditut. Lanaren haria jarraitu dut eta tutorearen proposamenak betetzen ahalegindu naiz, baina taldeko bilerak ez ditut beti aldeztu aurretik prestatu. Akatsen edota hanka sartzeen ardura hartu dut, nire erantzukizuna asumituta.	Moduluarekiko ardura izan dut. Egin behar ziren lanak egunean eraman ditut eta bileretara prest iritsi naiz, egin beharrekoak identifikatuta. Tutorearen feedbacka betetzeko kezka agertu dut, hobekuntzak egiten saiatuz. Akatsen edota hanka sartzeen ardura hartu dut. Taldekideen lana osatzen eta hobetzen saiatu naiz.

EDUKIAK	Taldeko kasuaren oinarriak sakontasunean kokatzeko zailtasuna izan dut: azalean geratu naiz interpretazioetan, irakurgaiak ez ditut behar bezala landu eta eroso egon naiz taldekideek esandako horretara mugatuta.	Taldeko kasua behar bezala ulertu eta interpretatzeko ahalegina egin dut. Saiatu naiz gaiarekin lotutako irakurgairen bat lantzen, baina taldekideek esanda izan da gehienetan, iniziatiba propiorik gabe. Gehiago egin nezake gure kasua sakontasunean lantzeko.	Taldeko kasuaosatzen saiatu naiz hasieratik eta interpretazio egokiak egiteko jarrera agertu dut. Irakurgaiak proposatu, landu eta horiek taldera ekarri ditut, edukiak modu aberatsean lantzeko ahaleginez. Taldean erabakitakoa bete dut, hortik kanpo bestelakorik egin gabe.	Taldeko kasua behar bezala kokatzeko kezka agertu dut hasieratik, ahalik eta interpretazio sakonena eginez. Irakurgai egokiak bilatu eta landu ditut, minimoetara mugatu gabe eta hausnarketa aberatsak helburu izanda, eta hobetzeko nahia erakutsiz beti.
ZUZENKETAK	Zuzendu beharreko alderdiak taldekideek esan behar izan dizkirate, nik gehienetan ez ditut horiek identifikatu. Tutoreak emandako feedbacka integratzeko ez naiz gai izan.	Zuzendu beharreko alderdi batzuk identifikatu ditut eta horiek hobetzen ahalegindu naiz. Halere, gehienetan nire lana beste taldekideren batek osatu behar izan du. Tutorearen feedbacka integratzen saiatu naiz, baina ez naiz beti nahi bezain eraginkorra izan.	Zuzendu beharreko alderdiak ongi identifikatu ditut eta, oro har, horiek bideratu ditut. Tutoreak proposatutako zuzenketa gehienak egin ditut, baina ez guzti-guztiak.	Zuzendu beharreko alderdiak ongi identifikatu ditut eta horietako bakoitza behar bezala bideratzeko denbora hartu eta esfortzua egin dut. Tutorearen feedbacka ongi jaso eta patxadaz aztertu dut, lanean aspektu guztiak modu osatuan jasotzeko. Lanen azken bertsioak birpasatzeko ardura hartu dut beti.

KALIFIKAZIOA (10etik):

NORBERAK MODULUAN EGINDAKOAZ BALORAZIO OSAGARRIA, ERRUBRIKAN AIPATU GABEAK JASOTZEKO:

10.5. Bostgarren eranskina



Euskarazko lan idatziak ebaluatzeko errubrika

Sarrera

Hemen duzun dokumentuan euskaraz matrikulatutako ikasleen idatzizko ekoizpenak ebaluatzeko errubrika bat topatuko duzu. Gasteizko Irakasleen UEko Euskara Batzordeak osatutako dokumentua da, Europako Markoak ezarritako B2 maila eta Haur eta Lehen Hezkuntzako 1. mailako Gaitasun Komunikatiboaren Garapena ikasgaiaren irizpideak jarraituz. Unibertsitateko Graduak araudiak ezarri duenaren arabera, euskaraz matrikulatutako ikasleak euskaraz ebaluatuak izan behar dira. Beraz, dokumentu hau baliagarria izan daiteke hizkuntzakoak ez diren ikasgaietan euskara idatzia ebaluatzeko. Bukatzeko, hizkuntzetan formazio espezifikoa ez duten irakasleek dokumentu hau lagungarria topatuko dutelakoan gaudela adierazi nahi dugu.

Euskara Batzordea. 2015eko Ekaina.

1. GAITASUN LINGUISTIKOA

M O R F O S I N TAX IA	a	(4 = B/OO+) Enuntziatuak bikain erakikitzen ditu. Ez dago akatsik. Egitura konplexuak erabiltzen daki.
	b	(3=OO) Enuntziatuak ongi eraikitzen ditu. Akatsen bat ageri da. Egitura konplexuak darabiltza.
	c	(2= O/G) Oro har, enuntziatuak ongi eraikitzen ditu. Esaldiak lotzen ditu. Akats batzuk ageri dira. Egitura arruntagoak darabiltza.
	d	(1 = S) Errore sistematikokoak ageri dira. Egitura arruntak eta sinpleak darabiltza eta ia lokailurik ez.
L E X I K O A	a	(4 = B/OO+) Termino zehatza egokiro hautatzen du. Lexiko aberatsa.
	b	(3 = OO) Termino zehatza egokiro hautatzen du, oro har. Lexiko aberatsa.
	c	(2 = O/G) Lexikoa nahiko zuzen darabil, zenbaitetan errepikatzen badu edota zehazten ez badu ere.
	d	(1 = S) Lexiko pobrea darabil, monotonia eta zehazgabea.
O R T O G R A FIA	a	(4 = B/OO+) Akats ortografikorik ez dago
	b	(3 = OO) Akats bakanen bat dago ez-ohiko terminoren batean.
	c	(2 = O/G) Akats batzuk daude, betiere sistematikoak ez direnak.
	d	(1 = S) Akats sistematikoak daude

2.GAITASUN DISKURTSIBOA

E G I T U R A	a) (4 = B/OO+) Azalpenaren egituraren arabera eraikitzen du testua, enuntziatuak ederki osatzen dituela.
	b) (3 = OO+) . Oro har, azalpenaren egitura mantentzen du. Diskurtsoa ongi antolatzen du, nahiz eta problemaren bat ager daitekeen.
	c) (2 = O/G) Oro har, azalpenaren sekuentzia ezartzen du, nahiz eta antolakuntza-akats arinak ageri diren.
	e (1 = S) Errore larriak eta sistematikoak ageri dira testua antolatzean.
R O H E S I O A	a) (4 = B/OO+) Ideiak eta esaldiak bikain lotzen ditu. Beti ongi darabiltza puntuazio-zeinuak.
	b) (3 = OO) Ideiak eta esaldiak ongi lotzen ditu, nahiz eta akats bakanen bat ageri den. Normalean ongi darabiltza puntuazio-zeinuak, akatsen bat ageri bada ere.
	c) (2 = O/G) Oro har, ideiak eta esaldiak lotuak ageri dira, akats zenbait ageri badira ere. Oinarrizko zeinuak zuzen darabiltza. Ez du nahasmenik sortzen.
	e (1 = S) Ideiak eta esaldiak gaizki lotzen ditu edo ez ditu lotzen. Zeinuak gaizki erabiliak edo ez erabiliak. Nahasmena sortzen du.
R O H E R E N TZI A	a) (4 = B/OO+) Informazio pertinentea hautatu eta progresio logikoan antolatzen du beti.
	b) (3 = OO) Nagusiki, informazio pertinentea hautatu eta nahiko progresio logikoan antolatzen du.
	c) (2 = O/G) Oro har, informazio pertinentea hautatu eta nahiko progresioa logikoan antolatzen du, zenbait akats badaude ere.
	d) (1 = S) Informazio ez pertinentea hautatu eta progresio tematiko ezegokia da.

3. GAITASUN SOZIOLINGUISTIKOA

E R R E G I S T R O A	a) (4 = B/OO+) Egoera komunikatibora ederki egokitzen du erregistroa.
	b) (3 = OO) Egoera komunikatibora ongi egokitzen du erregistroa, akats arinen bat ager daitekeen arren.
	c) (2 = O/G) Oro har, egoera komunikatibora egokitzen du erregistroa. Akats arinak daude.
	d) (1 = S) Ez du erregistroa egoera komunikatibora egokitzen.
E G O R I T A S U N A	a) (4 = B/OO+) Testuinguruaren beste koordenetara ederki egokitzen du diskurtsoa: eskatutako lan motara, gaiaren trataerara...
	b) (3 = OO) Testuinguruaren beste koordenetara ongi egokitzen du diskurtsoa, akats arinen bat badago ere.
	c) (2 = O/G) Oro har, testuinguruaren koordenada gehienetara egokitzen du diskurtsoa. Akats arin batzuk daude, hala ere.
	d) (1 = S) Ez du diskurtsoa egokitzen. Akats larriak daude eta testuak ez die koordenada testualei erantzuten: lan motari, gaiari eta haren trataerari...

* Laburduren azalpena::

B: Bikain// OO+: Oso ongi altua// OO: Oso ongi// O: Ongi// G: Gaiarritua// S: Suspenitua